

**“UME, BEGIRA EZAZU..”**  
**Antzerkia eskolara, gurasoen eskutik**



**GURABARRI Guraso Elkarte  
(Kurtzebarri LHI, Aretxabaleta)**

Harremanetarako:

[gurabbarri.kurtzebarri@gmail.com](mailto:gurabbarri.kurtzebarri@gmail.com)

## KURTZEBARRI ESKOLAKO GURABARRI GURASO ELKARTEAREN ANTZERKI PROIEKTUA

Guraso elkartera, Gurutze Urrutia, eskolako andereñoaren eskutik antzezlan bat sortzeko proposamena iritsi zitzaigun. Andereñoak eskolako liratur astea zela eta urte batzuk atzera lortutako ekintza bat errekuperatu nahi zuen, antzezlan bat taularatzea. Kasu honetan, Literatura astean **Christian Andersen** omentzen zenez, “Enperadorearen traje berria” ipuina aukeratu genuen.

### PROIEKTUAREN ABIAPUNTUA

---

- Ekintza: Antzezlan bat taularatzea.
- Nortzuek: Eskolako irakasle eta gurasook.
- Noiz: 2013ko apirilean.

- Helburua:

**Elkarrekin zerbait sortzea.** Elkar ezagutu eta harremanak sendotzea, haurrek gurasoen arteko harreman lana eredutzat hartzea, antzezlanean parte hartuko luketen irakasle eta guraso bakoitzarentzako ikasketa eta bizi esperientzia berria, orokorrean eskolarentzako bizipoza eta harrotasuna.

- Laguntza:

Lan honekin aurrera egiteko antzezlan zuzenduko zuen norbait behar genuen. Eskolarekin harremana duen Iurgi Etxebarria antzerkilari profesionala izan zen (ikasleekin eskola orduetan antzerki tailerrak ematen jardundakoa eta eskolako gurasoa, gainera), aurrekontua egiteko proposamena prestatu, antzezlanaren gidioa lortu, berau irakurri, entseguen egutegia zehaztu eta hamar aktore eskatu zituen.



Entsegu batean

Iurgik 2 orduko bost entseguko programa bat proposatu zuen. Entseguetan, antzerki jolasak, antzerki diziplina eta antzezlanak landu genituen. Umore ona, elkarlana, irudimena eta pazientzia baikortasunean borobildu ziren.

- Konfiantza jolasak:

Antzerkia egiteko elkarrenganako konfiantza ezinbestekoa da beraz lehenengo entseguetan gure arteko harremana landu genuen, begirada, kontaktua, ahotsa, lotsa eta gure sena. Elkar ezagutzea garrantzizkoa da.

- Pertsonaiak:

Ipuinean hainbat pertsonaia desberdin ageri dira. Nork nor egingo zuen aukeratu orduko, guztiok paper guztiak egiten jolastu genuen. horrela aurrerago, bakoitzak bere papera zuenean ezaugarri gehiagorekin aberastu ahal izango zuen bere pertsonaia. Bide batez, lan hau eginez, barre galantak ere egin genituen denok denon artean.

- Testua:

Gure eskuetara heldu zen testua, geurea egin behar genuen. Hasierako entseguetan gure modura esaten genuen esateko zegoena, gure euskalkian, gure txisteekin eta beharrezkoak ziren esaldiak bakarrik erabiliz. Gero zuzendariak testu bat idatzi zuen egindako bat-batekoetan oinarrituta eta azkenik testu hori ere geure egin genuen, gu gustura egon gintezen.

- Jantziak eta atrezzoak:

Lan honetan laguntzeko, beste guraso batek eskaini zuen bere burua (eta eskerrak!). Aktoreok lasaiago geratu ginen, nahiz eta azken unera arte ez jakin ziurtasunez bakoitzaren piura zein izango zen.

- Eszenaratzea:

Gure proposamenak eta dohainak neurtu genituen, bakoitza bere lekuan jarri eta antzerkiaren diziplinan zorrotz abiatuz eta tematuz denok harro egoteko moduko lana egin genuen.

- Argiak eta soinua:

Zuzendariaren esku geratu zen eta guraso baten laguntza jasoz gure antzezlanak profesionaltasun maila jaso zuen.

- Ikuslegoa:

Ekitaldi irekia izan zen, nahi zuen edonork ikusi ahal izan zuen; haurrek, irakasleek, lagunek, familiak, antzerkizaleek etab. Aretoa gainezka egin arte bete zenez, beste ekitaldi baten beharra izan genuen.

- Debuta:

Espero genituen baino entsegu gehiago egin ondoren dena prest egon zen. Gure urduritasuna, jolas batzuekin lasaitu genuen arren, gainean izan genuen amaitu arte. Arrakasta itzela.

- Presupuestoa:

50€ ordua; 5ordu = 250€ + 100€ (estreinaldiak) = 350€

## BALORAZIOA

Ikuslegoaren balorazioa itzela izan zen, “zer lan polita”, “zer, beste nonbaitera zabalduko duzue”, “ez nuen espero zuek horrela ikusterik”, “hurrengoan abisatu niri ere” ... eta Ikastetxeko Zuzendaritzak, ikasleentzako bigarren emanaldi bat egiteko eskatu zigun.

Gure balorazioa, “lan” askoren ordaina. Lana, berez, entseguetara joatea izan zen, proiektuak gure etxeetako giroa, laneko jarduna edo familiako egunerokoa trakestu zuelako. Aldiz, elkarlanean jarduteak bizi poza eman zigun, askok sekula ez genuen irudimenarekin hainbat jolastu, besteekiko konfiantza tratu hori izan, gure oholtzarako dohaina frogatu eta oholtzara igo ondoren, barruan sentitzen den poztasun hori bizi. Zinez aberasgarria izan da guretzat, parte hartu dugun irakasle eta gurasoentzat, gure haurrentzat, eskolarentzat eta herriarentzat.

Ikastetxeko aretoa bera ere, ikastetxearen bihotzean dagoena eta hainbeste erabiltzen dena, pozik utziko genuelakoan gaude: antzezlanaren prestakuntza prozesuan, antzeztoki bezala dituen hutsune tekniko batzuk konpontzeko erabakia hartu zen ikastetxean eta behar den moduko teloi bat egiteko oihala erosi zen, hainbat gurasoren artean josteko. Lana, egiari zor, ezin izan zen burutu antzezlanaren estreinaldirako (eta behin behineko teloi batekin jardun genuen) baina, tira, ez dugu uste une hartan inor horri begira izan zenik; gaur, ordea, aretoak beste itxura bat dauka eta abiapuntua antzezlan honen prestakuntza izan zen. Hurrengoan beste hobekuntza bat egingo diogu.



Antzezlaneko agurra

Estreinaldiko emanaldiaren bideoa ikusgai dago sarean, Ibai Madariaga irakasleak eskegita, honako helbidean (bertara heltzeko, “ctrl” sakatu eta aldi berean klik egin):

<http://www.youtube.com/watch?v=TzitngNJPAY>